

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/9/17 | 329

- 🌀 Kurtso berria abian, euskara ikastaroak hastear
- 🌀 Txindokiko Itzala, Larraitz inguruari argi berria
- 🌀 Ingurutxoa, Bedaiok berreskuratutako dantza
- 🌀 Osinzulo, Anoetako "plistina"
- 🌀 Igarondo Urpekoak, hegats-igeriketan urperatuz
- 🌀 Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...



Usadio zaharrak
berri Zelatungo
erromerian

OÑATIBIA

E S T E T I K A

Fotodepilazioa
klinikoki demostratua

a/ Emakumezkoa
izterondoak + besapeak + ezpain gaina
600€ tratmentu osoa

Ilearen eliminaziorako bi urtetan zehar
beharrezko sesioak egingo dira

b/ Emakumezkoa
hanka osoak + izterondoak + besapeak + ezpain gaina
330€ sesio bakoitza

d/ Gizonezkoa
soina 95€ sesioko

- Promozioak 2010eko urriaren 31 arte balio du
- Tratamentuaren bukaerarino prezioak mantenduko dira
- Tratamentuak pertsonalak eta transferaezinak izango dira.
- Finantziazio aukera
- Gorputzeko beste atal batzuetarako aurrekontua kontsultatu.

Pablo Gorosabel, 7 - 20400 Tolosa - Telf. 943 536 971



NUTRIZIO AHOLKULARITZA



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KOLEGIATU ZBK. 587

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBSIDATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

ARIKETA FISIKOA

HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2ª ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

JANTZIAK
OSKI
oinetakoak

3 hilabetetik 16 urte arte

Nafarroa etorbidea, 11
Telf. 943 651 264



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Amaia Goikoetxea
 Orbeago, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Jone Gorostarzu, losu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Nora Olano
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GORTIK
 Azala: Mikel Ortega (Errenteria)
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:

Ernioko magala, iraganaren eta orainaren topagune

Mendizaletasunak, trikiti doinuekin gerriak mugitzeko nahiak eta belaunaldi belaunaldi erakutsitako ohitura eta sinismenek bultzatuta, hamarnaka herritar ibiltzen da Erniora daramaten bideetatik barrena iraileko igandeetan. Nahiko izerdi bota ostean, Zelatunen nahi adina jan, edan eta dantzatzeko aukera izaten da.

8-11. orrialdeak

Iker Galartza ezagun bilakatu da Euskal Herriko etxeetan te-
 lebista saio ezagunei esker. 'Goenkale' edo 'Vaya Semanita'
 ospetsuenetan antzezle gisa aritzeaz gain, gidoilari, paila-
 zo eta antzerki antzezle modura ere lan egiten du, beti ere
 umorea sustrai duela.

Elkarrizketa: Iker Galartza

16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Antton Izagirre eta Joxe Agustin Arrieta	4-5
	Normalizazioa: Kurtso berria abian, euskara ikastaroak hastear	6-7
	Eskualdeko albisteak: Txindokiko Itzala, Larraitx inguruari argi berria	12-13
	Eskualdeko albisteak: Ingurutxoa, Bedaiok berreskuratutako dantza	14-15
	Bidean: Osinzulo, Anoetako "plisina"	19
	Kultura: Kirmen Uribe	20-21
	Kirol saltsa: Igarondo Urpekoak, hegats-igeriketan urperatuz	22-23

Aro berriari so



Antton Izagirre
Irakaslea

4 Azken urteotako politikagintzan “aldaketa” hitzari indar berezia eman nahi izan zaio. Batzuk eta besteek maiz erabili ohi dute aldaketa hitza, egun eskuartean dutena gogokoa ez dutela adierazteko edo agian, herritarrak ere politikoen jardunaz interesa galtzen ari direla ohartu direlako edota jardun politikoa herritarren interesetatik egunez egun aldentzen ari den praktika delako. Horrela berdin balio die aldaketa hitzak “kendu zu ni jartzeko” praktika politikoa gauzatzeko edo praktika bera izen desberdinez egiten jarraitzeko edo agintearen txandakatze politikoa modu ordenatuan “orain zu, gero ni” aplikatzeko edo...

Hala ere badira Euskal Herrian aldaketa zentzu sakonean aplikatu nahi duten praktikak, hau da, aro berri bat indarrean jartzeko sakoneko erabaki politikoak martxan jarri dituztenak. Gustatu ala ez, Ezker Abertzaleak azken urte honetan eman duen eztabaida politikoaren ondorioz egin dituen proposa-

menak izan dira dudarik gabe aldaketa politiko sakonerako ekarpenik erabakigarrienak. Azken urte hauetan euskal politikagintza blokeo egoeran sartuta ageri zen. Estatuak hartua zion neurria euskal politikagintzari. Horretarako nahiko izan zizaion Ezker Abertzalea ahultzea eta neutralizatzea, kartzela zigorra modu indiskriminatuan aplikatzea, sektore aktiboenari eskubide zibil eta politikoak ukatzea, beldurra gizarteratzea eta erantzun gaitasunak mugatzea. Behin hori guztia indarrez ezarri eta gero indar estatalistek eskuratu ahal izan dute herri ordezkariak demokraziaren izenean. Estatu totalitario eta faszisten praktikak aplikatu dituzte Euskal Herriaren aurka jotzeko, jakinaren gainean politika horiek kontsentsu zabala lortuko zutela Europa mailako estatu eskuindar eta zentralisten aldetik. Eta hau guztia aldaketaren izenean saldu nahi izan digute, Estatuak jabetu baita politika eredu honen errenta politikoaz. Independentziara bidean aktiboenak izan daitezkeen sektoreak kontrolatuta, gaineratzeko indarrak estatuaren neurriko joku politikora moldatu dira, benetako aldaketarako proposamen eta praktikarik gabe.

Bainan aldaketarako aukerak errealak dira eta horren beldur dira Estatuak bera eta, hemen eta orain, berau sostengatzen duten Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak.

Orain artean indarkeriaren erabilera eta haren babe-

sa erabiltzen zituzten aitzaki gisa politika erasotzaileak eta zigortzaileak justifikatzeko. Igandean, irailaren 5ean, ETAK indarkeriarik ez erabiltzeko hartutako erabakia jakinarazi ondoren, Estatuak eta haren babesleek egin dituzten adierazpenak kontutan izanez gero, agerian utzi digute haien urduritasuna eta ezinegona. Ohiko diskurtsoan egonkortuta erosoago zeudela erakutsi digute.

Ezker Abertzaleak markatu duen ildo politikoak, ETAK erabateko suetenerako bere aldetik eman duen urratsak eta indar politiko soberanistek sakoneko aldaketaren alde egiten ari diren apostuak, Estatuak bidegurutzetara batera eraman dute eta goiz ala beranduago bere politika aldatzera behartua izango da.

Bitartean, guztiaren artean harrigarriena PNVren jarrera ari da gertatzen. Goitik behera indar estatalistek diskurtsoan lerratzeaz gain, hor dirau Madrilen Euskal Herrian agortutzat ematen den Estatuaren apurrak negoziatzen, sinisgarritasun osoa galdu duen gobernu baten salbatzaile paperean.

Jokamolde batzuk eta besteak Euskal Herrian aro berri bat eraikitzen ari denaren adierazleak dira, herritarrei salbuespenenik gabe hitza emanez gero apurka apurka gauzatuko dena. Badugu motiborik horretaz konbentziturik egoteko eta sakoneko aldaketaren alde indarrak bilduz lanean jarduteko.

Zein arazorik nagusiena?

Hala ere, baditugu arazo larri ugari. Industriegintzaren birbideratzea, berrikuntzazko lan berriak, hezkuntzaren sistema sendotzea eta ez ahultzea, euskararen egoera motela berpiztea, azpiegiturak bideratu dira baina nola hobetu geure esku dugu. Zergatik ez dugu egiten industriegintzari eta ekonomia-aren krisiari aurre hartzeko buruzko egitasmo bateratua? Nola langabezia murriztu? Zergatik ez dugu zertan erabili behar dugun diru-presupuestoak erabakitzen, zer den beharrezkoena, zer den lehenengoa?, nola indartu eta bideratu gure eskal nortasuna, gure Euskadiren etorkizuna eta eraikuntza?...

Badakit zerrenda handitu daitekeela: soberakinak, zaborrak, kutsadura, atzerapena, etorkinak, baliabide-urritasuna, ustelkeria, administrazio astu-negia...Baina koska beste honetan dago: nola desberdin izanez elkarri traba egin gabe aurrera egin? Galderak ugari ezta?!

Diru iturriak nahiko agorturik baldin baditugu ere, goi-mailako ikasketak egin eta egiten dituzten gazte prestu ugari daukagu, hori bideratu behar dugu... salba daiteke oraindik gure ekonomia, salba daiteke gure industrializazioa, eta bultzadaiteke berrikuntza mailako lan egitura eta asmoak. Nolaz ez, orduan eta zuzenagoa izango litzateke gure giza-sozial maila eta ongi izateko gizartea.

Gure aitona-amonek ez zituzten ikaratu ez lanak eta ez nekeak. Eta bazekiten etorkizun hobearen itxaropenean guztia

arriskatzten. Esna gaitzen bada, eta elkar.

"Bazegoen behin oso aldarre txarra zeukan ume bat. Behin aitak eman zion poltsa bat iltze eta esan zion haserretuko zen bakoitzean etxearen atzealdeko hesian iltze bana sartu beharko zuela. Lehen egunean umeak 37 iltze sartu zituen hesian.

Baina pixkanaka baretuz joan zen, konturatu zelako errazagoa zela bere aldarrea kontrolatzea iltzeak hesian sartzea baino. Azkenik, egun batean umea ez zen ezertxo ere haserretu eta aitari esan zion, eta orduan aitak iradoki zion aldarre txarra kontrolatzen zuen egun bakoitzeko hesitik iltze bana atera beharko zuela.

Egunak joan, egunak etorri, azkenean gazteak esan zion aitari jada iltze guztiak hesitik atereak zituela. Orduan, aitak eskutik hartu eta atzealdeko hesira eraman zuen.

- Begira, semea, ondo egin duzu, baina ohartu zaitez zenbat zulo utzi dituzun hesian. Hesia jada ez da izango lehengoko hura. Suminduta gauzak esan edo egiten dituzunean, hesiko zulo honen moduko orbaina uzten duzu. Norbaiti aittoa sartzea bezalakoa da, nahiz eta atera, dagoeneko zauria eginda dago".

Ze egi handia ETA eragotzen eta traba ikaragarria dela, guztiz baztertzekoa bere diktadura bortitzarekin, baina trabak gehiago dira. Nik une honetan elkartasun eza jarriko nuke arazorik nagusiena



Joxe Agustin Arrieta
Irakaslea

Galdera eta erantzuna ez dira makalak. Nola argibidea eman? Ni beti oso zorrotza eta gaitzestez ibili izan naiz borroka armatua eta gure kasuan ETA. Baina badakit gure arazorik nagusiena ez dela hori. Badakit bestalde ETaren sarraskiak jasan dituztenen haserretzea ez dela harritzekoa, haragi bizitan baitaude. Ezin ere ontzat eman herri honetan "gerra zikinarekin" egin diren bidegabekeriak..., baina dena ez da berdina.

bezala gure etorkizuna bideratzeko. ETari buruz nahiko ados gaude, guztiz desagertu behar baitu. Ze gustura beste hainbat jenderen iritzia arlo eta ildo honetan adieraziko balirateke. Ez dugu asko hitz egin beharrik. Baina hemen-dik aurrera zer egin?, hemen-txe dago ardatza eta koska, hemen elkar jartzearen beharra eta bestetik ezin arbuia eta uxatu orain arte egin den guztia gure Euskadiren eraikuntzan. Eta agian, berriro

dio, hemen dago koska eta baita erronka.

Opor usaina majo aldendu-ta daukagu. Badugu hamaika lan. Etorkizuna ez daukagu patrikan, guk nahi bezala gertarazteko. Baina esperantza indartsua da eta eguneroko errealitatea sakonetik bizitzera eramaten digu. Horregatik, esperantzak bai itxaropenak, edertu egiten digu egunero-koregina. Ikasturte berri on, adiskide! Lan buelta arduratsua opa dizut. Aupa eta animo! ©

AEK: euskara ikastaroak Tolosaldeko herrietan

Kurtso berria abian, euskara ikastaroak hastear

Tolosaldeko AEK-k euskara ikastaroetan izena emateko matrikula epea ireki zuen irailaren 6an eta aukera egongo da beraz irailaren 24, ostirala, bitartean kurtso hauetan apuntatzeko.

Erredakzioa

Hizkuntza Eskakizunak nahiz HABEko 1., 2. eta 3. mailako azterketetara aurkezteko ikastaro bereziak aurki daitezke. Guraso nahiz merkatarri edo ostalarientzako ikastaroak ere eskaintzen ditu AEK-k ordutegi berezian, beharizan bereziak dituen ikaslego honi errazagoa suertatzeko asmoz.

Tolosaldea osatzen duten herri txikietakoko herritarrek aukera dute Tolosaldeko AEK-ren bitartez herrian bertan, taldea sortuz geroz, eskolara jasotzeko.

Euskara ikasteak Nor-Nori-Nork, baldintza eta subjuntibo artean murgilduta egotea baino askoz kontu zabalagoa dela jakinda, euskaltegiak bidea ematen du ikasleen artean harreman sare euskalduna sortzeko eta beraren bitartez ikasturtean zehar ekintza ezberdinetan parte hartzeko: lehiaketak, eskulanak, txan-

goak... Modu honetan euskaltegiak azaltzen duen moduan, ikasleek euren arteko harreman sareak osatzen dituzte eta bide batez, euskaraz hitz egiteko aukera berriak sortzen dira bai euskaltegian eta baita euskaltegitik kanpo ere.

Dagoeneko hainbat udalerritan izena emateko epea zabalik dago eta horretarako Udaletako Euskara Zerbitzuetan izenak jasotzen ari dira, ondoren mailaketa frogak egin eta urriaren 4an euskara eskolekin hasteko.

Informazio gehiago behar izanez gero AEK-ko telefono zenbakira deitu daiteke, 943 59 17 04-ra, bulegoko ordutegian (10.00-13.00 eta 18.00-20.00) aparteko argibide horiek eskuratu ahal izateko edo bestela andoain@aek.org helbide elektronikoaren bidez harremanetan jartzeko aukera ere badago.



Tolosaldeko AEK-k jakitera eman duenez maila guztietako ikastaroak ordutegi zabalean daude. Esaterako, euskalduntze ikastaroen artean aukera ezberdinak aurkeztu dira, maila ezberdinen arabera ere. Ikasleak aukera izango du bere ikasketa prozesua 10, 8 edo 6 orduko ikastarora moldatzeko.

Bestelako kurtsoen artean alfabetatze ikastaroak, EGA,

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia: euskara ikasteko bide zuzena

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian matrikula egiteko epeak zabalik jarraitzen du irailaren 17a bitartean. 943 65 10 06 telefono zenbakian edo aitzolue@tolosakoudala.net helbide elektronikoaren bitartez izena eman daiteke ikastaroen eskaintza zabalean:

euskalduntzeko eta alfabetatzeko maila guztiak, aurrez aurreko taldeak, modulu konbinatuak, autokaskuntza, azterketak prestatzeko aukera eta eskaerari egokitutako ikastaro bereziak –enpresa edo ikastetxeetan edo inguruko herrietan-.

III. IBARRA GALTZA KOMIKI KOMIKI LEHIAKETA 2010

III. Galtzakomik lehiaketa abian da

Euskarazko komikigintza bultzatzeko xedez Galtzaundik, Ibarra Udalaren babesarekin, duela hiru urte abian jarritako Galtzakomik lehiaketaren III. edizioa martxan da. Aipatu lehiaketan jatorrizko lanak aurkeztu behar dira. Ordenagailuaren bidez sortu eta tratatuak izan direnen kasuan, orri bakoitzeko inpresio bat aurkeztu behar da, A-4 neurrikoa eta guztienez 300 ppp-ko kalitatekoa. Kasu guztietan, lan bakoitzak A-4 neurriko lau orri izan ditzake gehienez. Lau orri horietan istorio bakar bat edo hainbat istorio landu ahal dira. Lanak formatu bertikalean aurkeztu behar dira.


Aurkezteko komikiak euskara hutsean egin behar dira eta per-

tsionaiak jatorrizkoak, autoreak berak eginak beraz, eta argitaragabekoak izan behar dira.

Azaroaren 19 bitartean Galtzaundiren egoitzan jasotako lanak Galtzaundiko komikilaria Joseba Antxustegietxartek, marrazki bizidunen egile Juanba Berasategik, Berriako komikigile Iñaki Martiarena "Mattin"-ek, Tolosako margolari Iñaki Epeldek, Tolosako margolari Jose Luis Longaronek eta ETBko aurkezle Kike Amonarrirek osatutako epaimahaiak aztertuko ditu.

Lanak hiru kategoriatan banatuta sarituko dira. 12 urtetik beherakoen artean irabazle suertatzen denak komiki bilduma eta marrazketarako materiala jasoko ditu. 12 urtetik

18 urte arteko irabazleak 400 euro eskuratuko ditu, eta, bigarrenak, 200 euro. Azkenik, 18 urtetik gorakoen artean lehenak 600 euro jasoko ditu, eta, bigarrenak, 400 euro. Sari banaketa abenduaren 10ean egingo da. Urtarrilean, berriz, Galtzaundiren egoitzan jasotako lan guztiekin erakusketa egingo da Ibarra Kultur Etxean.



Galtzaundi 329
10eko irailak 17



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIZKAZKA) FAXA: 943 653 916

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

Mertzzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

ANTZA

Ernioko magala, iraganaren eta orainaren topagune

Xakobeoko Gipuzkoako bide nagusia Iturriotzetik igarotzearen ondorioz, Ernio azpiko bideak beti izan dira jendetsuak. Eta egun ere hala dira, bereziki iraileko igandeetan. Mendizaletasunak, trikiti doinuekin gerriak mugitzeko nahiak eta belaunaldiz belaunaldi erakutsitako ohitura eta sinismenek bultzatuta, ehunka herritar ibiltzen da aipatu egunetan Erniora eramaten duten hamarnaka bideetatik barrena. Batzuk Iturriotzetik eta besteak Urkizutik, Hernialdetik, Bidaniatik, ... abiatu arren, Ernioko gailurra izaten da guztien helmuga. Nahiko izerdi bota eta Ernio gaineko bista paregabeak ondokoekin konpartitu ostean, Zelatungo belardietan elkartzen dira mendizaleak. Nahi adina jan, edan eta dantzatzeko aukera izaten da bertan.

Musika doinuak hastearekin bat, biribilak osatzen dira dantzarien artean. Besoak eta ipurdiak tente, arin-arina ala fandangoa, trikiti doinuen agin-duetara mugitzen dira hankak. Begiradak, txantxak eta irriak tartekatzen dira orduan. Batzuk dotoreziaz, aspaldi dantzatu gabekoak atrebentziaz, iraganak eta orainak bat egiten dute Zelatungo zelaietan. Aitonamonak, gurasoak eta semealabak ikusi daitezke bertako borden inguruetan. Izan ere, erromeriak ez du belaunaldi ezberdinen artean etenik izan irailako igandeetan.

Sinismen eta ohiturak

Egun Ernioko magalean egiten den festako protagonista nagusia erromeriaren baitan sortzen den giroa den arren, belaunaldiz belaunaldi erakutsitako sinismen eta ohiturek ere oraindik orain bizirik jarraitzen dute. Esaterako, Erniora iritsi baino metro batzuk behe-rago besteetatik nabarmen bereizten den gurutzea dago. Aipatu gurutzea, Gurutze Zaharra moduan ezagutua, Ernioko gai-



lurrean zegoen lehen. Tximista batek jo ostean, erdibitu egin zen. Zeruak eta lurrak bat egin zuten nolabait, eta ordutik, Gurutze Zaharrak hezurretako gaitzak sendatzeko duen gaitasunaren ustea oso zabaldua dago.

Ohiturari ala fedeari jarraiki, Gurutze Zaharraren besoetan kokatuak egoten diren uztaietatik mendizaleak beren gorputzak pasatzen ikustea ohikoa izaten da.

Egun bost bat uztai baino ez dauden arren, bere garaian 20 uztai inguru egoten ziren Gu-

rutze Zaharraren besoetan kokatuak. Belaunaldiz belaunaldi kontatu izan denaren arabera, gorputza uztai guztietatik pasa behar da.

Ohikoa izaten da halaber, Erniorekiko eta bere magalean egiten den erromeriarekiko maitasun ikur diren zintak Gurutze Zaharrean lotuta ikustea. Izan ere, erreumak ala artritidak jota egotearen ondorioz Erniora igo ezin direnek, Gurutze Zaharraren sendatzeko ahalmena bereganatzeko nahiarekin, zinta horiek etxera ekartzeko eskatu izan diete

urtez urte beren senide eta lagunei.

Zinten artean ezagunen ikurrinaren kolorekoak dira. Historialarien arabera, 1923. urtean azaldu ziren ikurrinaren kolorekoak, eta, urteak pasa ahala, ikusienak bilakatu ziren, Frankismoko errepresioaren ondorioz ezkutura pasa ziren arte. Orduan kolore ezberdinetako zintak saltzen hasi ziren: horiak, zuriak, moreak,... Oraindik orain, errezildarrak arduratzen dira aipatu zintak saltzeaz.

Gailurrera iritsi baino bizpa-hiru metro lehenago dagoen

babeslekuan kandelak piztuta ikustea ere ez da arraroa. Sinisten denari eskaintzak eta eskeak, desioak eta promesak. Izan ere, bakoitza bere baitan murgildu eta bere barruarekin hitz egiteko leku paregabea da Ernio.

Ernioaren magiaren erakusle dira ere erlijio taldeek, herriek eta norbanakoek bertan jarritako gurutzeak. Guztira 30 gurutze inguru dira Ernioko gailurrean. Guztietan nagusienak 11 metro inguru ditu altueran eta Ernio azpiko herritarren ekime- nez jarri zen bertan.

Gurutzea eraikitze-ko materiala idien laguntzaz igo zuten Zelatunera. Handik Ernioa igotzeko, berriz, mandoen indarrak baliatu ziren. Gurutzearen diru kostuei aurre egiteko herritarrengana jo zuten, diru bilketak eginez, errifak salduz,...

1947ko abuztuaren 31n inauguratu zuten mundutik haragoko bidea erakutsi nahi digun gurutzea eta, historia- larien arabera, izugarritzko jendetza bildu zen aipatu egunean. 10.000 laguneko zifra botatzen duenik ere bada. Sinismena ala ohitura, Erniok badu ezer berezirik, urtez urte euskaldunak naturarekin bat eginez harremanetan jartzera joaten baitira bertara, elkar errespetatuz, elkarrekin gozatuz, elkarren artean euskaraz mintzatuz. Izan ere, euskalduna salbu sentitzen da bertan, eta, askatasunez jarduten da naturarekiko harremanetan. Auzolanean sakonduz, berdin senti gaitzeko bakoitza bere herrira jaitsita- koan.



Jon Roteta

“Euskal kultura bizirik sentitzen dut Zelatunen”

Erniozaleak elkarteak 1997. urtean sortu zen. Ernio-ko gurutze nagusiaren 50. urteurrenean, aipatu gurutzea jarri zutenak omendu zituzten. Halaber, Gurutze Zaharraren ondoan erdi erorian zegoen borda txukundu zuten, horretarako beharrezko zuten materiala helikopteroz igo ondoren. Lan txukuna egin zuten auzolanean Ernioaren azpian dauden Alkiza, Larraul, Asteasu, Bidania, Errezil, Aia, Albiztur eta Ernialdeko herritarrek. Aipatu elkarte-ko kide da Jon Roteta.

Ernio-ko gurutze nagusiaren 50. urteurrenean zer nolako jaialdia antolatu zenuten?

Gurutzea jarri zutenak omen- du genituen. Ondoren, Zelatu- nera joan ginen. Trikitilari-ek musika jarri zuten. Antzezlan bat ere antzeztu zen. Gainera, Alkiza eta Errezil sokatiran lehiatu ginen. Errezildarrek eta alkizarrok serio antzera hartu genuen egun hura eta gazte nahiz heldu elkartu ginen. Egundorren harira lagun talde bat batu eta Ernio-ko bi- dean erdi erorian zegoen borda nola konpondu, lanak nola antolatu, ... hitz egiten hasi ginen. Elkarlan horren emaitza izan da Erniozaleak elkarteak.

Beste ekimenik bultzatu al du- zue?

Bi urtez behin mendi ibilaldi bat antolatzen dugu. Ibilaldiak 11 orduko iraupena du, eta, ibil- laldi bakoitza zortzi herrietako batetik hasten da. Ibilaldia anto-

latzeaz gain, Ernioa daramaten bideak markatu ditugu. Orain- dik egin ez dugun arren, Ernioa daramaten bideak garbitzeko beharraz ere hitz egin dugu. Er- niozaleak elkarteak bultzatu- ko ekimen guztiak auzolanean egiten ditugu.

Iraileko zein igande izaten duzu gustuko- en Ernioa igotzeko?

Alkizarrok iraileko hirugarren igandean igotzeko ohitura izan dugu beti. Hain justu ere, Alki- zako festak pasa eta hurrengo igandean. Eguraldiak ere asko agintzen du baina jende gehien hirugarren igandean igotzen dela uste dut. Azkeneko igande- rako uztea arriskutsua ere izan daiteke.

Zer berezitasun dute iraileko igandee- k?

Euskara eta euskal kultura oso bizirik senti- tzen ditut Zelatunen egiten den erromerian. Ernio, nolabait esate- rren, alkizarron bizkarra da. Ernio- tik mendi buelta egin ostean Zelatunera joate- a guretzako ohitura oso po- lita da. Senideon ar- tean hizketan has- ten garenean, nire amak, aitona- k, ... denak hor- tik pasatuak garel- a jabetzen naiz. Guretzako

Zelatungo festak diren arren, beraientzako, ziurrenik, egun hauek sinismenekin eta gehia- go lotuak dauden beste esa- nahia batzuk izango zituzten.

Gurutze Zaharraren sendatze- ko gaitasunaz zer duzu esate- ko?

Nik beti entzun izan dut Gurutze Zaharreko burdinak gorputzetik pasatzea hezu- rretarako ona dela. Sinismen horrek oso bizirik jarraitzen du. Ernioa joanez gero, jende asko ikusten da burdinen arte- tik beren gorputzak pasatzen. Oraindik, beraz, badu horrek bere esanahia.



Urte amaierarte orri osoa edo
erdia jarri nahi izanez gero,

%20ko

deskontua izango duzu!!

943 65 50 04

Zure establezimendua iragartzeko
aprobetxa ezazu aukeratu hau!!



Galtzaundi 329
10eko irailak 17

Galtzaundi zure iragarkiak plazaratzeko **gertu!!**

Galtzaundi aldizkaria eskualdeko aldizkari bakarra izanik, Tolosaldeko 23 herri desberdinetan banatzen da. Diseinua aldatu berri duen hamabostekariak, tirada bakoitzeko 20.000 irakurle ditu. Galtzaundi aldizkariak zabal-kunde handia du, Gipuzkoako liburutegi guztietara bidaltzen da, baita udaletxe, komertzio, jatetxe eta tabernetara ere.



Iragarri zaitez ere hilean
4.000 bisita baino
gehiago dituen
www.galtzaundi.com
web orrian!!!



Publizitate saila

*Nafarroa etorbidea, 6
Tolosa*

943 65 50 04

*publizitatea@galtzaundi.com
www.galtzaundi.com*



Txindokiko Itzala, Larraitz inguruari argi berria

Badira bost hilabete pasata Mariren Zuhaitzia zuhaitz-parkeak bere atek zabaldu zituenetik Txindokiren magalean. Txindokiko Itzala proiektu zabalagoaren baitan kokatzen den ekimena da Bizibiziki enpresak apirilean Larraitz inguruan martxan jarri zuena; natura, kultura eta abentura uztartzen duena. Hori dela eta, euren lehen udara igaro dela aprobetxatuta Ekaitz Zubelzu, proiektua kudeatzen duen enpresa arduradunari, hasierako ibilbide honen balorazioa egiteko eskatu dio Galtzaundik.

Naiara Roldán de Aránguiz

Ekaitz Zubelzuren hitzetan momentuz burutu daiteken balorazioa oso ona da, oso baikorra. Begiratu besterik ez dago parkeak hilabete hauetan izan duen bisitari kopuruari eta hilabetez hilabete izan duen garapenari ere; esaterako, Mariren Zuhaitziak bere atek ireki zituenetik 2.500 bisitari inguru eskuratu ditu. Arduradunek adierazi digutenaren arabera, "orain hasieran baino jende gehiago etortzen dela ikusi

dugu; gehien bat ahoz aho egin gara ezagun".

Bisita kopuruaren igoerari ahoz ahoko igorpenak lagundu badio ere hedabideetan agertu izanak ere mesede egin dio, honela baieztatuta geratu da arduradunen hitzetan: "telebistan eta aldizkarietan agertu ginenetik jendea etorri zaigu".

Bestaldetik, goizegi da proiektu osoa bere baitan aztertze baina zuhaitz-parkea abian jaritzeaz gain enpresak bestelako jarduerak burutzeko aukera ere eskaini du proiektu zabalago horren baitan. Horren adibide dira eskalada ikastaroak eta artzai bisita gidatuak ere. Azkenengo hauek Bidasoaz bestaldeko bisitariak ere erakarri egin dituzte, bertatik etorritako zenbait taldek artzai bisitaldian parte hartu dute, tokian tokiko ohiturak ezagutzeko intentzioarekin. Artzain bisita gidatuaren mamia Aralarko mendietan ibiliz artzain baten txabolara joan eta bertan gazta nola egiten den jakitean datza. Bertan artzaiak gazta egiteko pausu guztiak erakusten dio probatzaera animatzen den edonori.

Bisitarietako dagokionez eta bertaratu den publikoaren profilari buruz galdetzerakoan, Zubelzuek gehiegi pentsatu gabe erantzuna botatzen du: "gehien bat familiak hurbildu dira, gurasoek eta seme-alabek elkarrekin burutzeko jardura da". Izan ere, basoaren barruan naturaz gozatzeko modu dibertigarri honek aukera aparta



eskaintzen dio edozein adineko pertsonari tirolina, zubi, zintzilikatzeko soka, sare eta bestelako oztopoak gainditzeko, erronka horri aurre egiteko.

Parte hartzaileen jatorria kontutan hartuta gehienak ingurukoak izan direla zehaztu du ekimenaren arduradun den Ekaitz Zubelzuk. Tolosaldeko herritarrek zein goierritarrek euren inguruan zabaldu berri den proiektua eza gutu eta landa giroan aurkeztu zaien aukera horren berri izan nahi izan dute bertatik bertara. Hala ere, Txindokiko Itzala Gipuzkoan zabaldu den mota honetako lehen parkea izanik probintzia mailan ere oihartzuna izan eta hedabideetan agertu izanak Donostialdetik jende andana ere erakarri du.

Honako hau bisitariari dago-kionean. Hala ere bertakoek, Abaltzisketako bizilagunek, proiektuaz duten iritziak Zubelzuri galdetzerakoan baieztatu egin du ekimenak hasiera batean harridura sortu zuela herritarren artean baina gaur egun pozik daudela adierazi du: "gehien bat tabernariak, Larraitzeko tabernariak gustora hartu dituzte bezero berriak eta baita Abaltzisketako Ostatuak ere. Egia da inguruko herrietako bizilagunentzat betidanik Larraitz izan dela bilgune, tokiak jende asko erakarri izan duela baina proiektuak ere jende berri asko ekarri du".

Ikastetxeentzat aukera

Familia giroan parkeaz disfrutatzeak aukera egoteaz gain guinea oso aproposa da ikastetxeentzat ikasleekin irteera ezberdinak antolatuta ahal izateko. Hori dela eta, Txindokiko Itzalak ikastetxei programa bereziak eskaintzen dizkie; egun osoko jardura programa baten bitartez, honako hau mendi-ibilbideek, eskalada ikastaroek, zuhaitz parkean ari-



☞ Zuhaitz-parkeak natura, kultura eta abentura uztartzen ditu.

tzea bezalako ekintzek osatzen dute.

Orain kurtsoa hasi berri dagoela ikastetxe eta bestelako elkarteekin harremanetan jartzeko unea dute proiektu honen arduradunek, kanpaina berriari hasiera emateko. Informazioa eskuratu nahi duen edozein ikastetxek Internet du harremanetan jartzeko modurik errazena info@txindokikoitzala.com edo www.bizibiziki.com webguneak erabilita.

Udazkeneko ordutegia

Udazkena ate joka dugu eta horrek bere eragina izango du Mariren Zuhaitzia parkean, orain arteko ordutegia moldatu egingo dute eguraldi eta urtaro berrira egokitzeke. Irailetik urria erdira arte soilik asteburuetan egongo da irekita parkea eta urritik aurrera Aste Santua bitartean itxita. Hala ere, talderen batek bertara joateko intenzioa izanez gero parkea irekitzeko aukera egongo da, parkean bertan erreserba eginez.

Txindokiko Itzalaren erabateko gauzatzea

Mariren Zuhaitzia zuhaitz-parkea Txindokiko Itzalaren

proiektu zabalaren adarretako bat baino ez da, hasierako enborra; honi gutxinaka-gutxinaka bestelako adar batzua ateratzen joango zaizkio, proiektu berriak sortuz.

Hasierako pausuak parkeak eman ditu, bisitariari bertan bestelako zerbitzuak ere eskainiz. Gune partekatua dute Lur Lan Baserritar Elkarteak, Tolosa eta Goierriko Turismo Bulegoek eta parkeak berak. Parkerako sarrerak eskuratu daitezken tokian Lur Lan Baserritar Elkarteak Euskal Herriko produktuak salgai ditu eta bertan ere inguruko turismo informazioa eskuratzeko aukera dago.

Ekaitz Zubelzuren hitzetan hurrengo urteari begira jardura berriak garatzen jarraitu beharra dago eta horretarako herri txikietara zabaldu nahi du proiektua. Berak jakitera eman duen moduan: "Txindokiko Itzala egitasmoaren muina Garapen Lokalean du bere funtsa" eta hori dela eta herri txiki ezberdinei zuzendutako ekimen ugari dituzte aztergai, hala ere, momentuz eta ikusirik zenbaitetan aurrekontu murrizketak izan direla ezin du horien berri eman baina bai lanean ari direla konfirmatu. ☞

Galtzaundi 329
10eko irailak 17

Beti Nahi
gaitzeko

Garaian garaiko janariak
eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazio
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

Ingurutxoa, Bedaiok be

Bedaioko Amabirjinaren Jaietan ezinbesteko bihurtu da bertako ekitaldi bat: Ingurutxoa dantza emanaldia, alegia. Iragan irailaren 12an, igande arratsaldean, Tolosaldeko bizilagunek bedaiotarrak berezi egiten duten dantzaz gozatzeko aukera izan zuten.

Naiara Roldán de Aránguiz

Ingurutxoa Bedaion eta Ugarte auzoan baino ez da dantzatzen Gipuzkoa osoan barrena, izan ere, Nafarroako dantza da. Joan Antonio Sarasola txistulari bedaiotarrak dantza eta doinuak biltzen ibili zelarik Nafarroatik ekarri zuen Ingurutxoa, bere erara moldatu eta bertakoei erakutsi zien.

Gaur egun, denboraldi luzean galduta egon ostean, bi hamarkada inguruan, eta Valentina Jauregik berreskuratzeko lanak egin eta gero, urtean behin baino ez da dantzatzen, festetako egun nagusian, aldeztu aurretik bi astetan zehar gehienez lau entsegu burutu ostean. Garai batean ordea igandero dantzatzen zuten bedaiotarrek Ingurutxoa, erromerian, eliz-ospakizunaren ondoren. Garai hartako fedea kontutan hartuta herri guztia bertan biltzen zela sinesgarria da, dantzarako aitzakia batekin.

Jon Balerdi dantzariak azaltzen duenez gorteiatzeko dantza ere bazen garai haietan: "ordurarte sueltoko dantza ezaguna zen, bikotekideek ezagutzeko aitzakia behar zuten eta Ingurutxoak hala eskaintzen zuten, aproposa zen. Hala ere, bikotekideek beti zuten barrera bat, elizak esaten zuten bikotekideak ezin zirela eskutik heldu, zapi batekin elkartzen ziren eskuak. Baina hortik aurrera sortzen zi-



berreskuratutako dantza

ren begi jokoak eta hitz jokoak, euren artean geratzen ziren”.

Dantzari bedaiotarrari Ingu-rutxoak herriarentzat duen garrantziaz galdetzerakoan argi asko azaltzen du izenak berak adierazten duela garrantziaren zenbatekoa, ‘Bedaioko Ingu-rutxoak’ eta baita gaineratu ere politena bertako jendeak dantzatzea dela.

Herritarrek dantzatzen duten dantza da, aurtengo jaie-tan 14 bikote plazara jendear-tera atera ziren, eta herritik bertatik ere sortu zen erreku-peratzeko bidea Valentina Jau-regik Bedaioko jendea bildu zuenean duela 25 urte, gaz-te zein heldu, denen artean dantza gogorarazi eta berriro ere oholtza gainera eramate-ko nahiarekin. Dantza galdu izanaren arrazoiak Balerdiri galdetzerakoan bere susmoen artean gakoa txistularian ber-tan kokatzen du, “segurasko Ingu-rutxoak mantendu egin zen txistulariak jotzen utzi zion arte; txistularia behar zen eta trikitixak txistulariari lekua kendu zion”.

Egun dantzari nagusienak 70 urte inguru ditu eta berari dagokio gainera ‘taldeko oilarraren’ papera burutzea, Jon Balerdik dioenez “dantzari trebea da, ondo egiten du eta berari esaten diogu gidari lana egiteko”. Garai batean ordea paper hau “herriko dantzari onenak, trebeenak edo hobere-n dantzatzen zuenak egiten zuten, herriko neska ederrena-

rekin edo dantzari onenarekin arituz, bere gaitasun eta trebe-ziak herrian azaltzeko”, ematen du jakitera Balerdik. Orduan, plaza giroko dantza zen eta ez gaur egun bezalako estruk-turatutako dantza, bakoitzak bere trebeziak agerian uzten zituen eta azken urteotan ordea dena zehaztuta dago, eskuak eta guzti nola jarri behar dituzten zehazten dietela azal-tzen du Jon Balerdik.

Dantzari gazteenak laupa-bost urte dituela kontatzen du Jon Balerdik, “belaunaldiz belaunaldi” pasatzen den tradizioa dela nabarmenduz. Hala ere, bedaiotarrak bere kezka ere azaltzen du: “man-tendu beharreko gauza dela sentitzen dugu, orain guk gal-tzen baldin badugu, zailagoa izango dugu berreskuratze-ko; behin berreskuratu genuen eta orain galduz gero oso zaila izango da erreku-peratzea”.

Dantza emanaldia txistula-riaren soinuaz, herriko emaku-meren batek jositako bandera baten atzetik kalejira batekin hasten da. Ingu-ru-handi, inguru-txiki bikoteka dantzatzen da eta bigarren partean nes-kak ilara batean jarri eta mutil batek atzeraka dantzatzen du, ondoren fandango eta arin-a-rinari dagozkie euren txanda, azkenik plazatik irteera kaleji-raz ere egiten delarik.

Herritik kanpora

Honako egitura duen dan-tza Bedaio herritik gutxitan

atera da. Hasiera batean, be-rreskuratze-ko prozesuan ibili zirenean Tolosako Udalar-i dirulaguntza eskatu zioten jan-tziak eskuratu ahal izateko eta trukean Udalak Tolosa herri-an dantza erakustaldia egiteko eskatzen zien. Dantzari be-daiotarrak kontatutakoaren arabera “jendea ez zegoen gustora, jendea prest zegoen herrian bertan dantzatzeko baina bestela ez. Biltzarretatik ere deitu izan digute bai-na jendeak bakarrik Bedaio-n dantzatu nahi du”.

Hala ere, Jon Balerdi bakar-ka aritu izan da dantza hau erakusten eta kate horrek In-gurutxoak Ameriketako Estatu Batuetako euskal komunitatea kokaturik dagoen Boiseraino eramanez. laz Balerdi aritu zen Ingu-rutxoak erakusten Josema Mandiola Añorgako dan-tzariari, berak Oinkarik hango dantza taldeari erakusteko in-tentzioz. Orain beraz Boiseko dantzari-ek Ingu-rutxoak atlantiar ozeanoaren bestaldean dantzatuko dute txistulariaren doinua entzuterakoan.

Ingu-rutxoak ikusteko aukera

Bedaioko festetara bertaru-tu ez zaretenok bigarren au-kerak bat izango duzue Ingu-rtxo dantza ikusi ahal izateko, honako honetan Bedaioko ez eta Ugarteko Ingu-rutxoak ikusteko beta egongo da urrian Errozarioko Amaren omenezko jaie-tan, Amezketako Ugarte auzoan. ©

Galtzaundi 329
10eko irailak 17

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreoa, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa

IG
GORRI

Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apata industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa



Iker Galartza

Gidoilari, pailazo eta antzezle umorearen adarretatik

Iker Galartza Larrinaga Amezketan jaio zen 1977an. Lau urte zituenean Tolosara etorri ziren bizitzera, amona hil zen arte eta orain, lehengusuak direla medio, jaioterriko haria ez du eten eta gustura dago bertakoa izateaz. Ikasturte amaierarako antzezlana prestatzen zuten Eskolapioetan. Bertan diziplina zer zen jakin zuen eta bertako oroitzapen oso onak ditu. Horrelaxe, era naturalean antzezpen hori beste ikastetxeetan, Beotibarren Aiz-Orratz Elkarteko Kaldererotako saioan eta pixkanaka herri desberdinetan ematen hasi ziren.

Felix Aiestaran

Gasteizen Euskal Filologia ikasten hasi zen, bertako Antzerkiko Gela Librean sartu zen, gustura. Goenkalerako gidoiak egiteari ekin zion, halako batean Euxebio postaria jubilatu egiten zela eta ea berak egingo zuen bere papera galdetu zioten. Hasi-eran hamabost eguneko baja izan behar zuena, hainbat urtez luzatu zen. Balbemendin aktore

laguntzaile modura aritu zen, euskara teknikari lanetan, platoon bertan elkarrizketak txukunduaz. Halaxe, Vaya Semanita telebista saiorako proba egin eta bertan sartu aktore lanetan. Honetan aldi baterako arituko zelakoan Goenkaleko gidoiak ere idatzi zituen urtebetez, baina azken hau utzi egin behar izan zuen lan handiegia zelako.

Mokolo, Joseba Usabiaga eta beste lagunekin batera pailazo emanaldiak jarraitu zuten eta bestetik antzerkigintzari ere heldu zioten Ernesto Caballeroren Erreleboa egin zuten, Bota Patsa eta azkena Ate Joka. Pailazo lana telebistan edo CAF-en lan egin ondoren lagunartean asteburuaran norabaitera joan emanaldia egin, lagunartean bokata eta

sagardo pare bat edanaz ondo pasatzeko zaletasuna du. Gasteiak ordaintzeko besterik ez du ematen.

Mokoloren heriotza aipatzean, laguna galdu izanaren hunkidurak iluntzen du bere begirada, baina pozik dago Euskal Herriko pailazo guztien artean omenaldi ekitaldi xume eta zirrargarria eskaini eta ere lagunak hemen



geratzen direlako. Famaren zurrunbilotik ihesi, herriko kaleetan bere sendi edo lagunekin eroso sentitzen da. Telebistan lanean jarraituko du eta irailaren 24an Vaya Semanitako sketch lanez osaturiko antzezlanarekin estreinatuko dute Leidorren.

Nola murgildu zinen interpretazio munduan?

Behin batean andereño batek esan zigun lan handia egiten genuela eskolako antzezlanarekin prestatzen. Halaxe zen, gustuko lana genuen eta beste batzuk futbolekin aritzen ziren modura, denon artean berrogeita hamar minutuko saioa prestatua genuen. Lan guzti hori ikasturteko emanaldia egin eta bukatu egiten zenez, Aiz-Orratzekoek egiten duten Kaldereroetako haur jaialdian emanaldia egitea bururatu zitzaigun. Eskolako umeek ondo pasa bazuten, Beotibar umeek gainezka zegoela erronka dotorea izan zen eta horrela hauek ondo pasa bazuten beste herri batean ere emanaldiak egiteko animatu ginen, duela hamar urte. Horrela joan ginen Itsasondora lau ordu lehenago, urduri asko. Gastuak berdintzeko hamabi mila eskatu eta hogeita bost mila pezeta eman zizkiguten.

Jendetzaren aurrean aritzeak urduri jarri al zintuzten?

Ikuslegoak urduri jartzen gintuen eta gaur egun ere bai. Urduritasuna baino gehiago, ikuslearekiko errespetua eta erantzukizuna izaten dut taula-


Vaya Semanitako umorea garratza, adimentsua eta zaila da.


ratzen naizenean. Eszenatikian txapuz bat eginez gero aurreko lan guztiak ez du ezertarako balio.

Zein formazio izan duzu?

Gasteizko unibertsitateko Antzerki Gela Librean hasi nintzenean, zortzi neska eta ni neugeunden bertan. Irakasleak gorputza ondo menperatzen zuen eta dantza deklamazioa, testu klasikoak ezagutu eta performance-a moduko adierazpide berriak lantzeko aukera izan nuen.

Poxpolo eta Mokolo pailazoaren lana nola eraten duzue?

Guk pailazoaren gidoirik ez dugu sekula idatzi izan. Gure sormen lanketa inprobisazioan oinarritzen da eta gogorra da. Edozein aktore jarriko nuke gidoirik gabe edozein rola egiten. Lagunek ez dute gupidarik izaten zure interpretazio okerrekin. Probatu eta probatuaz osatzen dugu lana lagunaren artean. Halako batean, larunbateko ordu bata dela eta denok Txikira poteatzera joaten gara. Hurrengoan jarraituko dugu. Oroimena lantzeko era egokia da eta istorioa irekita gelditzean herri bakoitzean emanaldia egokitu daiteke. Eskema ba-

tetik abiatuta, idatzi gabe saioa irekia gelditzen da eta freskotasuna irabazten du.

Nolako ikusleak dira haurrak?

Umeak ikusle gogorak dira. Haurrak aspertzen badira alde egingo dute, ez dute helduen modura saioa bukatu arte itxarongo. Ikuskizuna prestatzerakoan umeen parte hartzea bultzatzen dugu. Gurasoak ere zaintzen ditugu, sketch pikante-xeagoa tartekatuz.

Mokoloren heriotzak astindu zintuzten...

Kolpe latza izan zen. Alde batetik, kristoren laguna galdu nuen eta bestetik nire pailazo kidea. Hiletaz gain Mokolori agur festa egitea bururatu zitzaigun pailazo guztion artean. Euskal Herriko pailazoak elkartuta Donostiako zezen plaza ere beteko zen, baina herrian agur festa xumea egin nahi izan genion. Leidorreko sarrera guztiak berehalaxe agortu ziren eta bi mila kartel jarri ere ez genituen egin sartu ezin ziren ume guztiak aintzat hartuta. Uste baino lan handiagoa izan zen, hamasei pailazoekin ordu eta erdiko emanaldia osatzea, baina esperientzia zoragarria izan zen.

Pailazoaren bihurrikeriak arriskutsuak al dira?

Batzuk halaxe dira bai. Halako batean, mahai gaineko mantela gainean

bi edalontzi eta beste bi plater jarri, mantelatik tira eta ontziak mahai gainean geratzen ziren. Umeak imitatu egiten du eta etxean halakoak probatzen hasten bada...

Gertaera xelebreak izango zenituzten, ezta?

Hasierako emanaldietako batean, Bakaikura joan eta herriko





“Ikuslearekiko errespetua eta erantzukizuna izaten dut.”

festetako gaupasaren biharamunean gazte guztiak zuhaitzen itzalean lotan botata zeuden. Gu urduri eta kable bat falta zitzaigun! Aitari deitu eta bera etorri arte, bertakoei laster hasiko ginela esanaz egon behar izan genuen kablea iritsi arte. Beste behin, Gasteizko ikastola batean makilajea ahaztu zitzaigun. Hartu genituen Haur Eskolako paperean margotzeko erabiltzen direnak. Ondoren, kendu ezinik komeria galantak izan genituen! Tolosaldean aktuatzea ikaragarri gustatzen zait, jendeak ezagutu egiten gaitu. Hasieratik jendearen jarrera parte hartzearena izaten da. Kanpoan ez bazaituzte ezagutzen horrenbeste, lehenik zeureganatu egin behar duzu ikuslegoa. Gauza ederra da gurasoek umeekin batera aurrean parte hartzea! Eta ez umeak aurrean utzi eta beraiek atzean solasean jartzea.

Emanaldietan erdarazko esaldiak tartekatzen dituzue...

Kasu batzuetan eszenatokira euskaraz ez dakien gurasoia igotzea gerta liteke... Emanaldietan ingelesa, frantsesarekin... hitz

jokoak egitea gustatzen zaigu. Euskararekin ez gara kaikuaren irudia ematen.

Gidoietako elkarrizketa freskoak egitea ez da horren erraza izango, ezta?

Ni, sortzaile txarra naiz. Ni, testu batek jende aurrean funtzionatu dezakeen edo ez ikusteko gai naiz. Sortuta dagoen testuarenean uneko jendeari egokitze trebatua nago. Elkarrizketa biziak eginaz asmatu izan dugu.

Goenkaleko esperientzia azal ezazu...

Orain dakidanarekin gustura hartuko nuke Goenkale. Aktore gaztea Goenkale ez da jabetzen ikasten ari denik. Orain jabetzen naiz, bertan zenbat ikasi nuen. Ni bezalako zortziehun bat aktore izango dira Euskal Herrian, baina aritu eta aritu kamera aurreko eraginkortasuna lortzen da. Hori telebistan oso baloratua da.

Zenbateko jautzia izan zen Vaya Semanitan hastea?

Altzon Tomax bezala ezagutzen ninduten, baina Barakaldon inork ez. Gaur Egun Santurtzin

geldituarazi eta mugikorrarekin argazkia ateratzen didate. Ehun mila lagun baino gehiagok ostegunero ikustearen ondorioa da. Pausokak ekoizten du eta lana modura, beste edozein serie baino dibertigarriagoa da. Apaiza, politikari edo guardia zibilaren sketch-a egiten duzu bata bestearen segidan. Furgonetan alde batetik bestera ibiltzen gara grabazioak egiteko. Norbaitek komunera joan behar badu ez dugu roulotarik. Vaya Semanita ez da zure lana oso *señoritoa* bazara; bataila gustatzen bazaizu, bai.

Nola definituko zenuke bere umorea?

Umore garratza, adimentsua eta zaila da. Jendeak lan egin ondoren, kaka-pixa moduko umore erraza eskatzen du, ez du burua eragin nahi izaten. Geure buruaz barre eginaz, denei egurra emanaz, umore betea da, kalitatezkoa. Ezin da onartu gaur egun, ikuslegoak eskatzen duen Gran Hermano moduko ekitaldiarekin haragi-janak duen arrakasta. Dena, iraina eta indarkerian oinarritzen da.

EITBn izan diren aldaketek zertan eragin dizu?

Aurtengoa, bereziki lan talde oso ona osatu dugu eta denok jarraituko genuela uste genuen. Badakigu EITBk zor handiak dituela, baina penagarria da lau lagun kanpoan utzi izana. Uztaila erdi aldera esan didate jarraituko dudala eta gidoiak ere pasa ditzidate. Lanbide honetan lagunak egiten dira, baina jabetzen zara ez direla beti zurekin arituko, baina...

Zein berezitasun du zuen antzerki ibilbideak?

Telebistan oso gustura ari naiz,

Elkarrizketa biziak eginaz asmatu izan dugu.




toki eta jende desberdinarekin, baina niretzat antzerkia ihesbidea da. Egunerokotasunetik atera, asteburuan ez dakit nongo herrira joan, emanaldia bukatu, lagunartean ogitartekoa sagardo pare batekin jan eta disfrutatzea oso garrantzitsua da. Bertatik ez da ogibiderik ateratzen, gastuak berdintzeko juxtu ateratzen da. Nomada izatearen askatasuna sentitzen da.

Antzerkigintzak zein egoera bizi du?

Udalek, krisia dela eta kulturari kendu diote lehenik. Guk baditugu hamaika emanaldi kobratzeko, oraindik. Antzerkitik bizi nahi duenak jai dauka. Bakarrizketa bat egin, bostehun kobratu eta agian hori izan daiteke formula, baina bestela ezin da. Urte eta erdian ehun antzerki emanaldi egin ditugu eta pailazoekin beste hirurogei. Ia astebururo emanaldia izaten dugu.

Zein egitasmo dituzu?

Usabiaga eta biok pailazoekin Poxpolo eta Konpainia-rekin jarraituko dugu, norberaren telebista saioez gain. Mokolo joan da, baina lagunak hemen daude. Mokolok errespetua merezi du, aldi bat utzi eta beste Poxpolorekin ibili nahi duen norbait ateratzen bada, aterako da.... Vaya Semanitako sketchak antzerkian probatu eta jendearen erantzuna ikusteko gogoia dut. Irailaren 24an Leidorren egingo dugu aurre-estrenaldia.



Bidean Osinzulo, Anoetako "plística"



Iosu Iztueta Azkue
Bidaiaia

Uda amaitzean da eta horrekin batera, kostaldeko herrietan, hondartza denboraldi ofiziala bukatu da. Tolosaldean ez dugu itsasorik baina bai igerilekuak, (Asteasukoa duela hilabete inauguratu dute). Irekiak direnak itxiko dituzte eta estaliak zabalik egongo dira: Tolosa (Usabal), Villabona (Olaederra).

Tolosako Berazubi Estadioan, 1960ko hamarkadan eraiki zen Tolosaldeko lehen "pizina". Garai hartan, igerian inor gutxi zekien leku horri "igerileku" deitzeko, nire etxean "plística" deitzen zion amak. Ordurarte bainatzeko tokiak egon bazeuden (Insaluseko presa adibidez) eta han igeri ikasitakoak izango dira dozenaka batzuk.

Gaurko mendi buelta Anoetako herrian hasiko dugu. Oria ibaiak irekitako haranean; trenbide, errepide, etxe, industria gune, baratza eta bestelakoak... bata bestearen ondoan edo elkarren segidan. Egutero jende asko ibiltzen da oinez, korrika, bizikletaz "Ernialdeko rektan", baina asfaltoa utzi eta bost kilometroko ibilalditxoak egitera gonbidatu nahi zaituztet.

Anoetako plazaren atzealdean, etxeak mendi ondo ondoan daude. Hango bidetik eskuinaldera joko dugu Alkizatik datorren erreka bila. Baserri handi baten goiko aldetik pasa

eta Gaztetxearekin egingo dugu topo. Ondo zaindutako baratzak, sagasti txukuna, pikondo eta intxaurren bat bide bazterrean utzi eta berehala gaude Zentrala zen eraikinean, mendian behera datorren hodia bistan geratzen da.

Atzean utzitako paisaje urbanotik gutxi izango dugu aurrerantzean, berdea eta itzala dira nagusi orain baina laster hasiko dira bazterrak gorritzen. Isiltasuna apurtzen duen gauza bakarra errekararen hotsa.

Zelai zelaia, lasai lasaia da bidea, segi zubi txikiraino, ur gardeneko lehen putzu honetan amuarrainen bat ikusteko aukerarik ez galdu. Hantxe dago OSINTZULO dioen gezia, hari kasu egin eta segi erreka eskuin aldean duzula, berehala iritsiko zara kartel bat dagoen tokira eta hortxe duzu Osinzuloko putzua. Presa moduko bat da baino naturala, ez dago hormigoi edo antzekorik.


Inguruko jende askok udako

berotan bainatzeko eta freskatzeko aukera aparta izan du hemen, haurrak plisti-plasta ibiltzeko leku aproposa da baina igeri egiteko txikiagia. Belaualdiz belaualdi parajea ez da gehiegi aldatu. Hainbat bazter zabortege itxura hartuta zeuden duela gutxi arte. Auzolana egina dute herriko gazteek bailara hau txukun mantentzeko. Anoetako arraun taldeak bere batelari "Osinzulo" izena jarri zion duela pare bat urte, Osinzulok Oria ibaiari egindako beste ekarpen bat.

Hemen bi aukera dauzkagu: etorritako bidetik itzuli edo 200 metro atzera egin eta ISASTI dioen bide seinaleari jarraitu. Bigarrenetik egitekotan, hasieran maldan gora jo behar dugu, bost minutura bideak ordekan egiten du eta basoa argituz doa. Ezkerraldera, amildegia eta erreka zuloaren beste aldean Alkizara doan errepidea.

Entresaka egindako pinudi gazte bat eskuinera eta hantxe

gurutzatuko dugu beheko zentralera doan hodia, (tubo gozantzarrituz gero bost minututan ur depositoa eta kanala ikus ditzakegu). Laster gaude ISASTI izeneko parajeen, belardiak eta ganadua larrean, argi indar poste metalikoa gainean, beste panel bat aldamenean. 200 metroko altueran gaude. Hemendik Anoetako herrira bide zabala da, dena maldan behera, Z handi bat eginez berriro asfaltoa eta hormigoia zapaltzeko moduan.

Lurrera eroritako sagarrak probatzeko aukerarik ez galdu. Gogoratu, bidean badaude edonorenak dira. Oraindik arboletan dauden gaztainak eta intxaurrek udazkeneko hego haizeak bota zai egon beharko duzu. 

Kirmen Uribe

“Jendeak bizitzari zentzua ematen



Idazle ondarrutarrak ‘Bilbao -New York-Bilbao’ eleberri saritua Galtzaundi Irakurle Taldean aztertzeko gerturatu dela aprobetxatuta elkarriketatzeari ezin uko egin.

Euskal Filologia Gasteizen eta Literatura Konparatua Trenton ikasitako egilea lasai eta umore onez ageritako da, bere gogoez azaltzerakoan algara sakona ezin ezkutatu.

Naiara Roldán de Aránguiz

Kirmen Uribe googletzeko orduan 657.000 erantzun jasotzeak ze sentzasio sortzen du?

(Barrea) Ez dakit.... Lagun batek egin zuen halako ekuaizio bat google-eko sarrera horiekin eta ez dakit ze zatiketa eginda bizitza zelan joango zaizun jakitea posible zela, berak esaten zidan ondo ateratzen zitzaidala. Sekula ez naiz fijas horrelako kontuetan. Kontrakoa esango nuke, niri buruz irakurtzean lotsatu egiten naiz, elkarriketak egin eta gero ez zait gustatzen esandakoa berri ere irakurtzea.



Baina irakurlegoarekin harremana izatea gustatzen zaizun heinean irakurle taldeetan parte hartzeak zer nolako garrantzia izaten du idazle batentzat, bere irakurlegoarekin zuzen-zuzenean egoteko aukera izanda?

Niretzako oso aberasgarria da zentzu askotan, asko ikasten dut, irakurleekin kontaktua lortzen dut; beraiekin hitz egitea, zer gustatu zaien, zer ez, zergatik, nik uste dut idazleekin asko ikasten duela. Idazleak ikasi behar du umila izaten, eta benetan ikusten jendeak zer ikusten dion on eta txar. Betidanik egin izan ditut irakurketak irakurleekin eta gainera uste dut oso garrantzitsuak direla. Duela gutxi Asturiasen egon naiz eta haiek esaten zidaten nola bizi daitekeen idazle bat euskaraz idatzita, nik esan nien Euskal Herria oso aktiboa dela, horrelako talde asko daudela,

horrelako ekitaldi asko egiten direla. Nahiz eta herri txikia izan masa kritiko handia dagoela.

Publikoarekin ere harremana izaten duzu bestelako emaldien bitartez, zutabegile, hitzaldi-emale, poetalari... Ze ezberdintasun dago batetik bestera egile modura hartzailagoarengandik jasotzen den horretan?

Desberdina da. Alde batetik errezitalak daude, musikarekin edo irudiekin. Nik uste oso harreman zuzena dela irakurlearekin, irakurleak oso ondo pasatzen du ordubeteetan baina gero joan egiten da. Lana helarazteko modu zuzen bat da, garbia. Gero hitzaldiak eta holako enkontruak daude, hauek bai hurbilagoak direla. Gustoko dut lagunekin gauzak egitea baina gustoko dut baita ere bakarka, jende aurrean



eko kontakizunak erabiltzen ditu”



bakarrik aritzea, gustatzen zait hitzaren indar hori errekupe-
tzea, betiko komunikazio hori,
hitzezko komunikazio hori. Bai-
ta jendearen hitza, iritzia ere.

Noizko hurrengo egitasmo mul-
timedia artearen adar ezberdin
horiek uztartzen dituen?

Durangoko azokan atera-
ko dugu ‘Bar Puerto’ izeneko
ikuskizuna, orain dela 10 urte
ikuskizun horren diskoa atera
genuen baina ikuskizuna berez
bideoa izan da, testigantzak zi-
tuen, ahozko testigantzak,...
Nik pena bat nuen, amonak
esaten zuen bezala arantza
bat, zergatik ez den argitaratu
ikuskizun bezala. Azkenean,
iaz Bilboko Poesia Astean gra-
batutakoa Durangon liburu
-dvdan aterako dugu. Horrekin
aurkezpen ekitaldi batzu egin-
go ditugu, ez asko, asmoa hiru
-lau egitea da.

Goazela ‘Bilbao-New York-Bil-
bao’ liburura. Euskarazko elebe-
rri onenearen Kritika Saria eta
Espainiako Narratiba Sariak jaso
zenituen zure lehen eleberrri ho-
nekin, irakurleagoak ere gustora
hartu zuen, denbora bat pasa
da eta gaur nola baloratzen
duzu liburuak emandakoa?

Positiboa. Oso liburu perso-
nala da, forma aldetik ere oso
berezia, ni jakinaren gainean
nengoen arrisku asko hartzen
nituela, azkenean argitaratu ge-
nuen hasierako ideia hori jasota
eta ondo atera da. Jendeak asko
maite izan du, sarien aurretik ere
bai. Pausu bat da liburu hau...
ere bai, etorriko da beste bat,
osatu duena. Nik uste liburuz
liburu pausuak osatzen noala:
‘Bitartean heldu eskutik’. ‘Bar
Puerto’, ‘Zaharregia, txikiegia
agian’, ‘Bilbao, New York, Bilbao’.
Nik uste unibertso bereko lanak
direla eta elkarrekin zerikusi
handia daukatela. Holako libu-
rura eta gero, ez sariagatik, eduki
duen harreragatik, nolako den,
zaila da orain. Formalki oso gau-
za berritzailea egin eta gero zer?
Orain zer egin behar dut? Ho-
rrek ez nau beldurtzen, barrua-
ri, intuizioari jarraitu behar da.
Ez da antzekoa izango, ari naiz
pentsatzen beste liburu batean.

Zer zailtasun izan zenuen ger-
tuko, familiako istoria bat kon-
tatzeko orduan?

Gauzak kontatuta daude
familietan gauzak kontatzen
diren bezala, gure erara, ez da

egia osoa izaten. Kontatzeko
era hori jaso nahi nuen, oroi-
tzeko modu hori, memoria
egiteko modu hori.

Eleberrian bertan ere istorio
bera idazteak sortzen dituen
beldur eta kezak agerian ge-
ratzen dira.

Hori azaldu nahi nuen. Orain
arte, egilea kanpoan gelditu
da, liburutik kanpo, bere bu-
rria babesten bezala. Nik egi-
lea saltsan sartzea nahi nuen,
beste pertsonaiekin batera;
egilearen zalantzak, alde on
eta txarrak.

Liburuan aipatzen da, Kevin
MacNeil-ek esandakoa, ‘idaz-
tea lapurtzea’ dela. Hala dela
uste al duzu?

Ni beti istoriak lapurtzen
nabil, jende guztiari... beno
egia esan orain ez ditut la-
purtzen, oparitu egiten dizki-
date, jendea etortzen da eta
oparitu egiten dizkit istoriak,
eskertu egiten dut. Egiten
dudana moldatzea da. Se-
kula ez duzu istoria bat bere
horretan jartzen liburuan.
Azkenean literaturaren ha-
siera hor dago, Omerok hori
egin zuen, mitoak jaso, berak
mito batzu aukeratu zituen
eta bere erara kontatu zituen.
Literatura hortxe hasten da,
idazleak aukeratzen duenean
zer kontatu, nahiz eta berak
ez asmatu, eta erabakitzen
duenean nola kontatu, forma
nola eman.

Liburuan ere jasotzen duzu
Donostiako Zinemaldian Meryl
Streepi egindako galdera. ‘Zein
da egin geniezazukeen galde-
rarik onena eta zein erantzuna?’
Berak: ‘Balio al du fikzioak gaur
egun?’ bota zuen. Zuretzako
beraz galdera bera.

Liburua galdera horri egin-
dako erantzuna da, fikzioari
egindako kritika da berez. Fik-
zio hutsa, irakurleak sinisten ez
duen fikzio hori, iristen ez zaio-
na. Nik uste idazleak oso gertu
egon behar duela errealitate-
tik eta pertsonengandik. Nik
hori egin nahi izan dut, berriz
buelatu benetako kontuetara.
Merezi du kontatzea bai, bal-
din eta istorioek merezi baldin
badute, indarra baldin badute
eta esanguratsuak baldin ba-
dira. Bestea adorno hutsa da,
apaingarriak egitea niri ez zait
gustatzen. Hori zen nire asmoa,
mundura bueltatzea.

Eta noski, ildoari jarraituz el-
karrizketari amaiera emateko:
‘Zein da egin geniezazukeen
galderarik onena eta bere
erantzuna?’

(Asko pentsatuta eta barre
egin ostean) Galdera izango
zen: ‘Jarraituko al du literaturak
bizirik?’ eta erantzuna ‘Bai’. Jen-
deak behar dituelako errela-
toak, kontakizunak behar ditu
bizitzeko, jendeak bere bizitza
antolatzeko, bizitzari zentzua
emateko kontakizunak erabil-
tzen ditu, errelatoak. Hori beti
izango da horrela.

Igarondo Urpekoak, hegats

Hegats-igeriketa gehiegi ezagutzen ez den kirola bada ere Tolosak aspalditik du jarduera honekiko tradizio eta ohitura sakona. Honen erantzukizuna Igarondo Urpekoak taldeari dagokio. Taldearen eta kirol beraren nondik norakoak ezagutzeko Gregorio Mancisidorrekin, Igarondo Urpekoakeko idazkari eta igerilariarekin, bildu da Galtzaundi.

Naiara Roldán de Aránguiz

Datorren urtean Tolosako Igarondo Urpekoak taldeak bere 30. urteurrena beteko du, Espainia mailan erreferentzia denak beraz ospakizun urtea izango du 2011. ena. Igarondo Urpekoak sorrera Igarondo Igeriketa taldean du; 1981. urtean igeriketa taldearen parte modura sortu eta 15 urte beranduago talde independente modura aritzeko agiriari egunean jarri zituen.

Hegats-igeriketa entzuterakoan askori eta askori kirola zehazki zertan datzan galdera burura etorriko zaio. Hona hemen beraz kirol honetaz eman daiteken azalpenetako bat: urpeko jardueren kirol modalitate bat da, igeriketa arruntarekin antzekotasuna baduena baina baita ezberdintzen duen ezaugarri garrantzitsua ere; hegats-igeriketan, izen berak adierazten duen modura elementu propulstazionalak beharrezkoak dira, hegatsak edo hegats-bakarra, urperaketa-rako aparteko osagarriez gain.

Gregorio Mancisidorrek azaltzen duenez "igeriketa ur-gainetik edo ur-azpitik egin daiteke; ur

gainetik tubo bat erabiltzen da eta ur azpitik aire konprimitudun botila, distantziaren arabera botilla handigoa edo txikiagoa izango da". Honen arabera beraz, apnea eta eskafandra erak bereizten dira eta honako hau kontutan hartuta ere distantzia ezberdinetako probak daude.

35 bat taldekide duen Igarondo Urpekoak hegats-igeriketan aritzen bada ere buzeorako lizentziak ere eskaintzen ditu, taldekide askoren zaletasuna baita. Taldearen egiturari dagokionez Mancisidorrek jakitera ematen duenez "oraintxe emakumezko gehiago dago, %60 neska izango dira, gutxi gorabehera". Talde misto honetan entrenamenduak adinaren arabera sailkatzen dira: 12-14 urte bitartean haur-kategoria, 14-16 urte bitartean kadete, 16-18 bitartean junior eta 18 urtetik gora absolutuak kokatzen dira 35 urtetan muga zehaztuz, hortik behera senior eta gora beteranoak.

Txapelketetan hasteko beharrezkoa da 12 urte beteta izatea, hala ere neska-mutilek Igarondo Urpekoak taldean izena eman dezakete 10 urtetik aurrera, orduan hastapenetan hasi daitezke jolasean ikasiz. Bestelakoek entrenamendu sakonagoak behar izaten dituzte, adinak aurrera egin ahala saio hauek gogortuz dihoaztela.

Gregorio Mancisidorrek azaldukoaren arabera entrenamendu hauek txapelketa ezberdinetara zuzenduta egoten dira. Abendutik hasi eta ekaina bitartean euskal-napar ligaxkan lehiatzen dira hilabetean

behin eta ondoren bi lehiaketa garrantzitsuetan parte hartzeko prestaketak burutzen dituzte: Erkidegoen arteko Espainiako Txapelketa, normalean martxoan izaten dena eta bestetik Kluben arteko Espainiako Txapelketa, udaran jokatzeko dena.

Honetaz gain, Igarondo Urpekoakeko ordezkariak jakitera eman duenez urtean behin Munduko Kopan parte hartzen saiatzen dira, "txapelketa gertu tokatzen denean", azaltzen du. Iaz Italian izan ziren, uste baino emaitza hobekak eskuratuz. Iaz ere, Mara Varelak hirugarren postua lortu zuen. Hori dela eta hurrengo urteari begira hitzorduari ez diote kale egin nahi eta Frantzia aldera ere joko dute udaberrian.

Munduko Kopan parte hartzearen arrazoietako bat ikastea da Gregorio Mancisidorrek azaltzen duen bezala: "bertan bes-telako nibela dute baina hara joan eta ikasi egiten dugu, Europako jende onenarekin egon (Errusiarrak eta Italiarrak batik batik) eta asko ikasten dugu; materialak eta ikusteko baleagarria izaten da". Materialei buruz hitz egiterakoan igerilariak airtortzen du lehiatzeko hegatsak Ukrainiatik ekartzen dituztela eta bainujantziak ere interneten azken berrikuntzak miatuz Europako herrialde ezberdinetatik eskuratu ohi dituztela.

Gutxien kirola izanik hedabideetan oihartzun gehiegi ez duela azpimarratu egiten du Mancisidorrek. Hala ere, gutxien kirola izateak bere alde oso positiboa ere badu, esate-

s-igeriketan urperatuz



rako Espainiako Txapelketan 200 bat kirolari bildu eta elkarren artean denak ezagunak izaten dira: "ondo eramaten gara, denok ezagutu eta gure pike txikiak ere izaten ditugu... Ordiziarrekin, Katalanekin...".

Izan ere Igarondo Urpekoak taldearen xedeetako bat talde-lana bera da, txapelketak garrantzitsuak izan bai baina talde lana garrantzitsuena izaten da bertako ordezkariatzat. Kirol honek eta elkarrekin berak bultzatzen dituen balioetaz galdetzerakoan Mancisidorrek "talde lana eta emaitzak eskuratzeko beharrezkoa den alde aurretiko lana" aipatzen du,

honakoa gaineratuz: "ez dugu marka bat egitea eskatzen, bakoitzak egiten duen lanari ematen diogu garrantzia, egu-nero entrenatzera joateari".

Roberto Jauregui omenaldia

Urtero Roberto Jauregui, Igarondo Urpekoak sortzeko lanetan ibilitakoa eta 20 urte-tan bertako entrenatzaile gisa aritutakoari, omenaldia eskaintzen dio elkarrekin Espainia mailan antolatzen den hegats-igeriketako txapelketa nagusia eskainiz. Urtero Usabal Kiroldegian haur eta kadete kategorietako 160 bat igerilari biltzen dira.

lazio emaitzak eta aurtengo erronkak

Gregorio Mancisidorrek iaz eskuratutako emaitzen inguruan oso balorazio baikorra egin du: "Espainiako Txapelketan 11 domina lortu genituen eta gazteenek ere beste bi. Oso pozik gaude, bestelako talde furteenekin konparatuz askoz jende gutxiago daukagu baina emaitza oso onak lortzen ditugu. Espainiako Selezioarekin ere parte hartu dugu". Hurrengo urteari begira planteatutako erronka iazko emaitzak berdintzea edo hobetzea da eta horretarako gazteenen maila hobetzen saiatzen arituko dira hasi berri duten denboraldi honetan. ©

ZETA^s_l

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219

kutxa

23



ARTE
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Matrikula zabalik

Tolosa - Kale Nagusia, 16
Tlf. 677 340 685

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

irakurri entzun Ikusi

Ikiliko txondorra
Xabier Artola Zubillaga

Ikazgintza iruditzen. Ikazkinik ez da gehiago ikusiko euskal herrietako mendietan... argazkietarako ez bada. Liburu honetakoa duzu horren adibide. Argazkiak 2009an eginak, Alkizan.

It's fiesta time!
Los Reyes del K.O.

Taldearen seigarren diska; bluesa oinarri izanda, bestelako erritmoei ere erreferentzia eginez; funk, soul, hip-hop eta musika latinoaren doinuaz zipritinduta. Lehenengoz taldekiek beraiek konposatutako gaietaz gozatzeko aukera.

London River
Rachid Bouchareb

Ousmane eta Elisabeth elkarren arteko bi ezezagun dira: bata musulmana, Frantzian bizi dena eta bestea kristau alarguna, Mantxako Kanaleko uharte batean bizi dena. 2005eko ekainaren 7an euren bideak elkartu egingo dira, Londreseko metroan zenbait lehergaiek eztanda egiten dutenean. Une horretatik abiatuta erlijioak elkartu egingo ditu euren seme-alaben bilaketan.

Irailaren 17tik urriaren 1era arteko hitzorduak

Erakusketak

TOPIC

'Panpina bizidunak' erakusketak, irailaren 23a arte. (*Gomaespuma, Los Lunnis, Mortadela y Filemón*)



Aranburu jauregia
Irailaren 24tik azoaren 13ra. Inestable. Gko Galeriarren produkzioa.
Irailaren 24tik urriaren 9ra. Tolosako Egutegiko argazki lehiaketako irudiak.

Antzerkia

Leidor

Vaya Semanitako sketch lanez osaturiko antzezlanak. Irailak 24.



XXII. Gargardo festa

Tolosako Zerkausion. Irailaren 16tik 19ra. 27 garagardo ezberdin dastatzeko aukera; Bratwurt, Frankfurt saltxitxak, burrunzia eta txerri ukondoak lagunduta.

Zinema

Leidor

Irailaren 18tik hasita eta 27a bitartean Tolosako Leidorren ikusgai egongo diren filmak ondorengoak dira: *Yo soy el amor*, *London River* eta *Sunshine Cleaning*. Haurrei zuzendutako filmak *El aprendiz de brujo* eta *Como perros y gatos 2* eskainiko zaizkie. Irailaren 23an ospatuko den zine forumean ordea *Tú y yo* pelikula aztertu egingo da.





Galtzaundi 329
10eko irailak 17

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionatutako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Lorezaintzako proiektuen diseinua, errepresentazioa eta elaborazioa	2010/09/27	285
Euskara ikastaroa	2010/10/04	300
Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarriak	2010/10/01	628
Arku elektrikoko soldatzailea	2010/10/01	313
Kirol- ikastaroak	2010/10/01	200
Haur eta gazteen astialdiko begirale ikastaroa	2010/10/09	320
Haur eta gazteen astialdiko zuzendari ikastaroa	2011/01/22	100

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefona: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

Lehiaketa

Ibarra
Ibarrak datorren irailaren 26an piparraren lehiaketa gastro-nomikoa ospatuko du. Lehiaketan parte hartzeko epea irailaren 20an amaitzen da. Udalerriak gainera baserriar azoka eskainiko du artisau, abere eta bestelakoekin.



Azoka

Bidegoian
Irailaren 26an. Nekazaritza-azoka. Sardina, sagardo eta txakoli dastaketa herrikoia. Nekazari produktuak eta artisauak bertan lanean.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 17 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Asteazkena, 22 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	Astelehena, 27 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa
Larunbata, 18 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Osteguna, 23 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Astearte, 28 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Igandea, 19 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 24 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Asteazkena, 29 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Astelehena, 20 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	Larunbata, 25 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Osteguna, 30 Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra
Astearte, 21 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Igandea, 26 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Ostirala, 1 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	(asteazk.)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Ur zerbitzuak (aberiak)	943 670 325
Medikua	lurreamendi egoitza	112
Bidegoian	Larrialdiak, Suhiltzaileak	943 672 536
Medikua	DYA	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	Gurutze Gorria	943 651 425
Osasun etxea		943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

TINDATEGIA
KATZ
Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

**ARALAR
KIROLAK**
Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle titulu-duna. 664.16.02.68

Etxebizitza

• Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

• 60m²-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sarzako prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garage eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Pisu edo apartamentu baten bila nabil alokairuan hartzeko. Tolosan edo inguruan. 656.744.115

Salgai

• Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512

• Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxo opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Ekin beharko diozu horrenbeste arduratzen zaituen kontu horri; izan ere, jakin badakizu geldirik egotekoa ez zara, adrelalina gustuko duzula.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Egun lasaiak izango dira zuretzako. Ez da aparteko gertakizunik izango zure bizitzan une honetan. Bikotekidearekin orain arteko martxan jarraituko duzu eta horrelakorik ez baduzu agian oraingoa ez da unerik aiposena horretarako.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Lanez lepo egongo zara baina gustora, hala ere, seguruen denborak arinegi ihes egiten dizula pentsatuko duzu, har ezazu bai zuretzako eta baita maite dituzun horientzako denbora.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Azkenik gauzak baretu eta, itxuran dena hankaz gora badago ere, zure tokia eta kontuak aurrera eramateko modua topatu duzu. Uste baino askoz garrantzitsuagoa zara eta zenbaitetan baztertua sentitzen bazara ere, sentimendu horiek alde batera uzteko in-darra izango duzu.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Aro berria hastera zoaz eta proiektu berriei ekiteko gogoz zaude. Hala ere, zure bizitza pribatua ezin duzu alde batera utzi, izan ere gertuko pertsonaren batek ondoren leporatu egingo dizu eta. Ustekabeko gastuak.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Lagunak gogoan izan beharko zenuzke. Aldatu ezean abisuak errealtate bihurtuko dira. Egon badaude zenbait kontu berehalako irtenbidea behar dutenak.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Etrokizun oparoa, bidaiak luze bat burutzeko parada izango duzu. Ikasteko eta aurrera egiteko duzun gaitasunak baldintzatuko duena. Kontutan izan esaten duzuna, gehiegi pentsatu gabe hitz ondorioak dakartza.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Lehtasuna zeri eman behar diozun erabaki beharrean zaude. Egon badaude zenbait gai arduratzen zaituztenak, ez zaitez kezkatu, uste baino arinagoak dira eta. Hala ere, zaila badi-ridi ere pertsona horrekin hitz egin beharko duzu.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Aurreko guztia alde batera utzi eta berriro hastea erabakiko duzu, beharrean zaude. Noizean behin beharrezkoa izaten da bihozkaidei erreparatzea, baina hala ere beti hau ez da onena izaten. Erabakia hartu aurretik ondo pentsatu ezazu egin beharrezkoa zer den.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Hemendik aurrera zuretzat oso garrantzitsua izango den norbait ezagutuko duzu. Zure bizitzako momenturik berezietan alboan izango duzuna. Pertsona hori zure inspirazio bihurtuko duzu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Azkar konpondu beharreko arazoan murgilduko zara, ondo pentsatu ezazu laguntza nori eskatuko diozun. Egoera hau baliogarria egingo zaizu benetako lagunak nortzu diren jakiteko.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Norbaitek proiektu interesgarria eskainiko duzu, betidanik desiratu izan duzuna. Arriskuak ez dira Nolanahi-koak, beraz erabakia hartu aurretik ondo pentsatu. Behar beste hitz egin, familia horretarako dago eta.

26




MAITRIKULAZIA

Aitzol
Udal
Euskaltegia

MAILA GUZTIAK
AURREZ AURREKO TALDEAK
AUTOKASITUNTZA
TTULU HOMOLOGATUAK

Irailaren 18 arte
bulego ordutegia
09:00-13:00 / 16:00-19:00



Rondilla 34-B, 3.a
20400 Tolosa
tel. 943 651 006 - 943 652 343
www.udaleuskaltegiak.net
aitzolue@tolosakoudala.net

harria gresak

25 urte zure bainugela janzten
Neurrira egindako bainugelatan espezializatuak

Zelaeta, 1 Beasain (Gipuzkoa) Tel. 943 885 466
Emeterio Arrese, 7 Tolosa (Gipuzkoa) Tel. 943 245 200
www.harriagresak.com - beto@harriagresak.com



MAK/14/010011



**Konpartitu itzazu
nahi baduzu...**

2 betaurreko
kristalekin
Graduazio
berdinarekin edo
desberdinarekin

97€

2
konbinatu
mó

Esanmina hau baliagarria izango da 10/10/1982/2016, 10/10/1303/2014 eta 2011. Berriztatze itzazu optikan, hargaitasunaren eraginez. Erditze eta gileatu beste promozio batiak.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehenengoa zerbitzu optikoetan

25 urte

zure ehorztetxea...
zuretzako lanean...
zugandik hurbil...
zutaz arduratzen...
zuri laguntzeko...
zuregatik hobetzen...
zurekin aurrera!



FUNERARIA **VASCONGADA** EHORZKETAK

TOLOSAKO TANATORIOA